

LEZO / Olerki eta ipuin lehiaketetan parte hartzeko aukera dago

Hilaren 17an zabalduko da txapelketetan parte hartzeko epea eta hilaren 21ean bukatuko da

Lorea Muguruza. Lezo

Hilaren 17an zabalduko da XV. Jon Garbizu Olerki Lehiaketako eta XV. Lope Isastikoa Ipuin Lehiaketetan parte hartzeko aukera. Dena den, astebeteko epea dago bakarrik ipuin edo olerki lanak Andreone Udal Liburutegian aurkezteko.

Sei urtetik 15 urterainoko gaztetxoek har dezakete parte ipuin eta olerki lehiaketetan. Hala ere, bost maila ezberdinetan banatuko dira parte-hartzaileak: A Mailan, 6 eta 7 urtekoak; B Mailan, 8 eta 9 urtekoak; D Mailan, 10 eta 11 urtekoak; E Mailan, 12 eta 13 urtekoak, eta F Mailan, 14 eta 15 urte artekoak.

Maila bakoitzean ipuin eta olerki onenari saria emango diete: 100 euroko txartela emango diete irabazleei liburuak erosteko.

Aipatutako sariak abenduaren 12an emango dituzte Andreone Udal Liburutegian, 19:00etan.

Saririk irabazi ez duten lanak jasotzeko aukera izango dute partehartzaileek. Hala ere, epemuga jarri dute lanak berreskuratzeko: 2009ko urtarrilaren 31 baino lehen pasatu behar da Andreone Udal Liburutegitik.

Arduradunek aditzera eman dute epe hori pasatu eta gero lanak suntsitu egingo dituztela.

Horrez gain, arduradunek gogorarazi dute literatur zaletasuna bultzatzea dutela helburu ipuin eta olerki lehiaketek.

Idazlanak

Idazlanek gehienez hiru orrialdeko luzera izan behar dute: azalean izenburua idatzi behar da; lan bakoitzeko, gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da, egilearen datuak zehaztuz. Gutunazala lanei grapaz josi behar zaie liburutegian aurkezteko.